

Bilbo, 2012ko Maiatzaren 22a

Jabier Kaltzakorta

Egunon jaun-andre guztioi:

Egunon Andres Urrutia euskaltzainburu jaunari, egunon BBKko ordezkari Gorka Martinez eta Oscar Clementeri, egunon sariturik izan zareten neska-mutiloi, eta, azkenik, egunon hona etorri zareten guztioi.

Idaztea hitzak jostea da. Idazlea, ezer bada, hitz-jostuna da. Idaztea da geure bakarrean egiten dugun ariera bat, jardun bat, ekintza bat. Uste dut bakardadea lagun dugula egiten dugun jardunik barnekoi eta benetakoena dela idaztea. Geure memoria guztia baliatzen dugu, geure sentipenak geure jakituria, geure bizipenak, geure fantasia eta geure bulkoak geure ametsak... Hitzak elkarren segidan jartzen ditugunean, hitzei geure hurrenkera propiala ematen diegunean, hitzak bakarka duten zentzua baino askoz gehiagoko den zerbait eratzen dute.

Euskal Herri osoko umeak irudikatzen ditut, nor bere txokoan, R. M. Azkue sariketarako poema edo ipuin bat idazten. R. M. Azkue sariketara aurkezten den poemak edo ipuinak badu amets bat erantsita. Poema edo ipuin baten bidez sari bat lortu nahi du idazle gazteak, mutiko idazleak edo neskato idazleak. Mutiko edo neskato gazteak poema edo ipuina idazteko orduan amets bat izango du eragile nagusia. Saritua izan nahiko du eta desira horrek bihotza eta auspoa emango dizkio idazle gazteari. Sariaren ametsak indarra ematen dio idazleari eta egunetan eta egunetan irudikatzen

dut bere sorkaria trinkotzen, borobiltzen, ertzak hiltzen. Idatzi ondoren atera den poema edo ipuina kometa bat bezalakoa da, eskuan hartu eta haizeak hegatzen duen kometa bat. Kometa bat hegatuko bada, lurgaina utzi eta haizearen lagun egingo bada, ezaugarri batzuk izan beharko ditu. Artoski eta amultsuki egindako objektu bat izan beharko du. Guk epaimahaikook, Joseba Butron, Mayi Iza eta hirurok geure eskuetara iritsi diren poema eta ipuin guztiak kometak bailiran maitasunez hartu ditugu eta zero goietara goren hegatzen direnak saritzen saiatu gara. Zeren ipuin josi batek edo poema trinko batek, edertasun handiko zerbait denez, zeruan hegatzen den kometa koloretsu baten airostasun eta urustasuna baititu. Horrexegatik zorionekoak dira R. M. Azkue sariketara aurkeztu diren lan guztien egileak eta batez ere sarituak izan zireten guztiok.

NARRAZIOA

LEHEN SARIA *Ez dago musik*

Ostegunero lau lagun Balentin, Felix, Iñaki eta Erramun elkartzen dira herriko elkartean eta musean jokatu ohi dute afari mokadua egin baino lehen. Osteguneroko kontua da lau lagunek musean jokatzeari afaldu aurretik. Mus partidan, osteran, ustezko lagunarteko giro baketsu horretan bakoitzaren ezkutuko bulkoak, grinak eta garratzasunak ere atera ohi dira. Jokalari bakoitzak bizitzan izan dituen traizioak, fideltasun ezak islatuko dira jokoan ere. Lagun arteko musaldi bat baino askozaz gehiago da jokaldi bakoitza. Mus partida bakoitza izozmendi bat bezalakoa da. Izozmendiak urazalaren azpian ezkututzen du bere zatirik handiena...

BIGARREN SARIA *Gauaren beharra*

Ipuin honetako pertsonaiaren izena ez dakigu, baina hirietan bizi den gutariko askoren itxura du. Badakigu, esaterako, bulegoan lan egiten duela eta bulegora joateko metroa hartu behar duela. Badakigu bere betibateko bizitza horri aurre egiteko gauaren beharra duela eta batez ere amets egiteko beharra. Ipuinean ezer gailentzen bada dudarik gabe poesia dugu. Ipuin honetan protagonistaren ametsak poesiaz orakatuak daude. Eta diodanaren adibide bat emateko hona pasarte bat:

“Aitonaren heriotzatik errekuperatu ginenean, gurasoek oporretan joatea pentsatu zuten. Guztiok joango ginen oporretan, amona, ni eta gurasoak. Nire lehen oporrak zirenez, irrikaz jaso nuen berria eta ia hilabete lehenago hasi nintzen gauzak prestatzen. Kostaldera joango ginen, Mediterraneoko ur epeletara, astebetez hoteletik hondartzara joatea baino ez zen izango gure zeregina. Honela ikusi nuen lehen aldiz itsasoa. Gaur oraindik, irrika berdinak liluratzen nau, barnean oporraldi hartan nire gorputzean apurtutako olatuak sentitzen ditut eta haiekin batera ozeano infinitoetara joatea baino ez dut desira. Korronteak eraman nazala, olatuek astin nazatela, zilar kolore bizia uraren bizkarretik alde egiten ikusi nahi dut, zerumugara noizbait ailegatu, eta han geratu betiko, eguzkia egunero irtetzen ikustea beste zereginik gabe.”

HIRUGARREN SARIA *Ainarak bezala*

Ipuin honetako protagonista Ainara dugu. Ainara nesktila argi eta ameslaria da, dudarik gabe. Ainara eta

Iñaki bere gurasoekin bizi dira. Ainarak, ordea, ez dio bere aitari inoiz aita deituko, Karlos baizik. Aita bere enpresa lanetan buru belarri sarturik etxekoak baztertzen ditu. Ainararen bizitza batez ere gertakari batek aldatuko du. Egun batez aitak ama jotzen, zafratzen duela ikusteak Ainararen bizitzan eragin handia izango du. Ainara tristatu eta bere onetik aterako du aitaren jarrera honek.

Ipuinaren hasieran Ainara protagonistaren izena eta txoriarena bat egingo dute esaldi sotil batean: *“Ttipitan Ainara uros bizi zen, eta haren ametsa zen udazken batez Karlos, ama eta Iñaki ainarekin batera Afrikari buruz hegaldatzea”* Ipuinaren bukaeran ere Ainara pertsonaizena eta txoria bat egingo dira, dilogia polit batean. Hortik, beraz, izenburua.

Ipuin honetako euskara mugaz haraindikoa dugu. Erran, uros, behako, aitzin, tronpatu eta abar.

LEHEN SARIA *Idazten hasi da*

Idaztearen prozesua eta ondorioa adierazten du poema honek. Idaztearen prozesu horretan esperientzia hautatuak eta irudimena ditu lagungarri handienak. Honela hasten da poema:

*Axotaren tinta txukunak
paper zimurtuan
erliebe bihurriak
marrazten doazen heinean
garuneko zirriborroak
paper ontzira botatzeaz aspertuta
idazten hasi da.*

BIGARREN SARIA *Zer da denbora?*

Denboraren gaineko gogoeta bat dugu poema hau. Bizitzaren bost garai diferentetan denbora desberdin ikusten da. Hona zahartzaroan zer den denbora:

*Denbora zer den galdetu zenidan zahartu nintzenean
Azkar bukatzen den bonboi kaxa beltza.
Irribarreetatik malkoetara,
malkoetatik muxuetara,
batetik eta bestetik dastatuz,
ia oharkabean bukatzen dena.
Atzean utzitako bide luzearen oroitzapenak,
gelditzen den ibilbide motzaren itxaropenak.
Maitasunez gogoratuk dudan bizitza batek utzitako
ilusio eta penak.
Zer da denbora?*

HIRUGARREN SARIA *Los Angeles, 2019*

Los Angeles hiriaren deskribapen trinko bat da poema hau. Ameriketako Los Angeles etorkizunean, 2019 urtean. Poema indartsua da dudarik gabe, niri, egia esan, Lorcaren **Poeta en Nueva York** liburuaren oihartzuna eta barne-indarra dakarzkiz gogora. Hona hasiera:

*Neonezko mezu lausoek ñir-ñir egiten dute irregularki,
Eta telebista-dendako pantaila itzalietan desitxuratuta
ikusten da
Nola asfalto bustian islatzen diren modu bitxian
Plastikozko bota-pare batek mila pusketan hausten dituen
arte.*